

LH 3


HIZKUNTZA KOMUNIKAZIOA: EUSKARA

MINTZAMENA

PROBA EZAGUTZEKO EREDUA

EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA

EBALUATZAILEARENTZAKO MATERIALA



ISEI • IVEI

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

LH3

HIZKUNTZA KOMUNIKAZIOA: EUSKARA


MINTZAMENA

1. ATALA: SOLASA

PROBA EZAGUTZEKO EREDUA

EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA

EBALUATZAILEARENTZAKO MATERIALA



ISEI•IVEI

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

SOLASA

Ebaluatzaileak ikasleari egingo dion elkarrizketa gidatua.

JARRAIBIDE OROKORRAK:

- a. Elkarrizketa egiten duen ebaluatzaileak hautatuko ditu galderak.
- b. Lehendabizi ikasle bati egingo dizkio galderak; ondoren besteari. Saiatuko da galdera berberak ez egiten.
- c. Galderak orientagarriak dira. Gainera, atal hau ez da galdeketa bat, galdera hurbilak biltzen ditu, ikasle-ebaluatzaile interakzioari lagundu eta ikasleak hitz egitera bultzatzeko.
- d. Ikasleek arazoak badituzte galderei erantzuteko, edo isilik geratzen badira, laguntza behar duten ikasleentzako jarraibideak erabil daitezke (ikus aplikazio-gida).
- e. Ez dira galdera asko egin behar; denbora agortzen bada, nahiz eta galdera pare bati soilik erantzun, amaitutzat eman daiteke ariketa. Gogoratu behar da atal hau burutzeko 1:30-2 minutu dituztela LHn.

FAMILIA

- Non jaio zara?
- Zenbat zarete familian? Zenbat anaia-arreba zarete? Zein adinekoak?
- Norekin bizi zara?

HIZKUNTZAK

- Etxean zein hizkuntzatan hitz egiten duzue? Eta lagunekin zein hizkuntzatan hitz egiten duzu?
- Beste hizkuntza batzuk ikasi nahi dituzu? Zertarako? Noiz erabiltzeko?

OPORRAK

- Zer egiten duzu oporretan?
- Zure herrian / hirian / auzoan geratzen zara ala beste leku batera joaten zara?
- Udalekuetara joaten zara? Gustatu zaizu? Zerbaiten falta sentitu zenuen?

AISIALDIA ETA OSPAKIZUNAK

- Zer egiten duzu asteburuetan? Lagunekin ibiltzen zara? Zer egiten duzue?
- Zein jolas duzu gustuko? Zeinetan zara abila, ona? Zein jolasetan hobetu nahi duzu?
- Nola ospatzen dituzu urtebetetzeak? Norekin?
- Zer egiten duzue eskolako jaietan?

IKASTETXEA

- Zer gustatzen zaizu eskola honetan? Lekuren bat esan. Zergatik?
- Oinez etortzen zara eskolara? Autobusez? Nola etortzen zara? Zergatik?
- Jantokiko janaria gustuko duzu? Ona ala txarra da?
- Jolastokian zer egiten duzu? Zer egitea gustatuko litzaizuke?
- Zenbat lagun dituzu gelan? Nolakoak dira?

ZALETASUNAK

- Kirolrik egiten duzu? Zein? Astean zenbat aldiz? Lehiaketetan parte hartzen duzu? Baduzu saririk?
- Nolako jolasak eta jokoak gustatzen zaizkizu? Bideojokoak? Partxisa eta mahai gainean lagunekin batera jolastekoak? Filmak ikusi?

LH3

HIZKUNTZA KOMUNIKAZIOA: EUSKARA


MINTZAMENA

2. ATALA: BAKARRIZKETA

PROBA EZAGUTZEKO EREDUA

EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA

EBALUATZAILEARENTZAKO MATERIALA



ISEI•IVEI

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

JARRAIBIDE OROKORRAK

- Ikasleei esan bakoitzak istorio bat kontatu behar duela.
- Ikasleatariko bati materiala eman. Ataza ikasleari azaldu:

“Begira, hemen dituzu 6 biñeta. Ordenan doaz ezkerretik eskuinera (keinuz lagundu). Zuk **istorioa kontatu** behar duzu. Honakoa kontatu:

- Nortzuk diren - Nolakoak - Zer egiten ari diren
- Zer gertatzen zaien – Zergatik”




- Utzi denboratxo bat lasai pentsatzeko. Ziurtatu egitekoa ulertu duela.
 - Kontuan izan proba hau egiteko minutu bat duela ikasle bakoitzak

IKASLEAK LAGUNTZARIK BEHAR BADU

Ikasleak aparteko laguntzarik behar badu (arrazoi asko tarteko: hizkuntz eredia, etorri berria izatea...), honelako estrategiak erabil ditzakezu:

- Esperientzia pertsonala kontatzea eskatu: “Inoiz gertatu zaizu holakorik?” “Zure lagun bati?”
- Deskribatu biñetak: zer ikusten da.

Tortilla (egileak: Lea, Lars & Dodo. Schubi)



LH3

HIZKUNTZA KOMUNIKAZIOA: EUSKARA


MINTZAMENA

3. ATALA: ELKARRIZKETA

PROBA EZAGUTZEKO EREDUA

EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA

EBALUATZAILEARENTZAKO MATERIALA



ISEI•IVEI
IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

JARRAIBIDE OROKORRAK

- a. **Ikasleei materiala eman.**
- b. **Ataza ozenki irakurri. Ondo ulertu dutela ziurtatu.**

Zer egin behar duzu?

1. Marrazki bana daukazue, biak antzekoak baina ez berdin-berdinak. Desberdintasunak aurkitu beharko dituzue.
2. **Txandaka hitz egin** beharko duzue. Zure txanda denean (**ikasle bati begira**), hasieran, zure **irudia deskribatu** eta, gero, zure kideari **galdetu** beharko diozu. Eta, gero, zuk berdin (**beste ikasleari begira**).
3. Amaitzean, bi marrazkiak mahai gainean jarriko dituzue eta niri esango didazue zeintzuk diren desberdintasunak.

- c. **Aurrez aurre jarri solaskide biak elkarreragina errazteko. Esan bati hasteko.**
- d. **Kontuan izan: bikote bakoitzak atal hau egiteko 2-3 minutu ditu.**

IKASLEEK LAGUNTZA BEHAR IZATEKOTAN

Ikasleek aparteko laguntzarik behar badute (arrazoi asko tarteko), ebaluatzaileak elkarrizketa gidatuko du txandak antolatuz eta galdera zuzenak eginez.

ELURRA - A IKASLEA



ELURRA - B IKASLEA



ELURRA - EBALUATZAILEA

